


Yitzhak Rabinen  
hilketa

# Bakea sinatu zuen soldadua

*Palestinarrak etsai nagusiak palestinar Estatuaren lehen harria jarri zuen*

**U**rteetan palestinarrek etsai nagusizat hartu zuten Yitzhak Rabin, baina orain «nahiago dugu bake gestioetan sozio bezala gogoratzea» izan da palestinarren jarrera, joan zen larunbatean atentatuan hil zuten Israelgo lehen ministroari buruz hitz egitean. Rabinek, militar zela, Palestina guztia bereganatu zuen Israelentzat, baina estadista zela palestinar Estatuaren lehen harria jarri zuen.



Simon Peres eta Yitzhak Rabin larunbateko mitinean, lehen ministroa tirokatu baino lehen.

SVEN NACKSTRAND / EPA

Koldo Aldabe / Donostia

«SEI Eguneko Gerrako heroi» egin zuten israeldarrek Rabin, 1967an Estatu Goreneko buruzagi zela Jordania, Egipto eta Siriako armaden aurka garaipen itzela lortu zuenean. Garaipen horrek baino askozaz ospe handiagoa eman zion, ordea, gerra horretan Gaza eta Zisjordaniarekin batera Jerusalem bereganatu izanak Israelentzat. Alderdi Laboristan gogorren taldekoa izan zen, eta sekula ez zion eskuak dar-dar egin Estatuaren izenean hilketak eta bahiketak agintzeko. Azken adibidea duela bi aste Maltan Jihad islamikoari jotako kolpe gogorra izan zen, zerbitzu sekretuek (Mosad) Rabinen aginduz, Fati Shakaki Jihadeko buruzagi eta sortzailea hil zutenean. Soldadu zaharrak gobernuburutza hartu zuenean ez zuten bere izaera militarra alde batera utzi eta Defentsa Ministerioa ere bere erantzukizun zuzena izan zen.

Baina esku gogor hori ez zuen bakarrik gerrarako erabili. Aitzitik, bakea sinatu eta urteetan etsai izandakoari bostekoa luzatzeko ere erabili zuen eskuineko eskua. 1993ko irailaren 13a egun historikotzat jo zen, Gaza, Zisjordania eta Jerusalem konkistatu zituen buruzagi israeldarrek Jasser Arafat Palestinaren Askapenerako Erakundeko (PAE) lehendakariarekin bakea sinatu zuenean. Urtebete geroago, gauza bera egin zuen Jordaniako Hussein erregearekin, 46 urteko gerra egoerari amaiera emanaz.

**Estadista pragmatikoa** • Estadista argitsu bezala baino gehiago estadista pragmatiko bezala ezagutuko dute larunbatean tiroz hil zuten gobernuburu laborista. Berak esanak dira honako hauek: «bakeak bai merezi duela lur batzuk galtzea», «Estatu Judua nahi dugu eta ez bi naziotako estatu bat», «ausartek bakarrik estada dezakete bakea».

Bere «ausardia» nazioartean ongi ezagutu zuen eta Bakearen Nobel saria irabazi zuen Arafatekin batera. Baina Rabinek

1992an boterera igo zenetik egin zuena egiteko berarekin batera Bake Nobel saria irabazi zuen Simon Peresen laguntza ezinbestekoa izan zen. Alderdi Laboristaren barnean etsai porrokatuak izan arren, alderdia zati ez zedin Rabinek onartu egin behar izan zuen Peres Atzerri ministro izendatzea. Hasieran etsaitasuna zena konfiantza bihurtu zen geroxeago eta azkenean adiskide

min egin ziren. Itzalpean lan ugari egin, Peres izan zen Osloko negoziazio sekretuetan PAErekin akordioa lortu zuena ospea Rabinek eraman arren.

**Peres Rabinen lekuan** • Orain Peresi dagokio Rabinen lekua hartzea. Herrialde arabiarrekin bakeak egiteko borondate handiagoa erakutsi du Rabinek baino, baina beti ere Atzerri ministro

gisa, 1984-86an Likud alderdi eskuindarrekin Batasun Nazionalako Gobernuko buruzagia izan zenean gogor gobernatu baitzuen. Gogorren taldetik usoen taldera iragan zen Peres Alderdi Laboristan 90eko hamarkadan. Kargu berria hartzean ez du oposizioaren aldetik etsaitasun handirik izango, baina bere lana bikoitza izango da, ez delako Rabin aldamenen izango.

## Judu ultraeskuindarrak

HOGETA zazpi urte ditu, Zuzenbide ikaslea da, eta «Jainkoak aginduta» aritzen dela dio Igal Amir-ek, Yitzhak Rabin lehen ministroa hil zuen gazteak. Bere nortasunaren inguruan xehetasun gutxi eman dituzte iturri ofizialek: Golani unitateko erreserbista dela eta zinpeko goardia gisa egiten zuela lan. Beste hamabost egun emango ditu kartzelan. Rabin hiltzeko erabakia «nik eta Jainkoak» hartu zutela erantzun du Epaitegiaren aurrean. Baina Poli-

ziaren arabera, Amir talde estremista judu baten aginduetara ziharduen. Hain zuzen ere Eyal (Borrokalari Juduen Erakundea) taldekoa zelako hipotesia darabil Poliziak. Aivishai Ravid Eyaleko buruzagiak Amirrekin inolako zerikusirik ez duela esan eta hilketa gaitzetsi duen arren, Bar Ilan Unibertsitateko —biak bertan matrikulatuta daude— iturrien arabera Amri eta Ravid «lagun banaezinak» ziren.

Talde armatu juduean aditu diren arabera, 200-300 judu armatu daude Israelen armataro jotzeko prest

—baita juduen aurka ere—, palestinarrekiko bake prozesua sabotatzeko. Lagun horiek legez kanpoko talde txikiak dira, Kach eta Kahane taldeetakoak esaterako. Talde ultranazionalista eta ultraerlijioso horiek azken urteotan izan diren barne gertaera larrienak egin dituzte: 1982an bost palestinar hil zituzten granadaz eginiko atentatuan Jerusalem, 1994ko otsailan Hebrongo meskita batean otoi egiten ari ziren palestinarren aurkako tiroketa larria izan zen eta horiei gehitu behar zaie Rabinen hilketa

Tel Aviven egin zen bakearen aldeko manifestazioaren amaieran.

Rabinek hilketarekin erabat minduta eta larunbateko atentatuaren aurka nazioartean izan den gaitzespen zabala aprobetxatuz, Israelgo Gobernu talde ultraeskuindar juduen aurkako operazio handi bat egitear, atzo iturri fidagarrien bitartez jakin zenez. Iturri horien arabera, segurtasun indarrak xehetasun guztiak biltzen ari dira Israelgo bihotzean diharduten talde horiei buruz, ondoren informazio guztia euren aurka erabili ahal izateko. X

## Siriak eutsi egin nahi dio bake prozesuari

■ *Palestinarrak askok, Irakek, Libiak eta Libanok ospatu egin dute Rabinen heriotza*

Agentziak / Damasko / Jerusalem

SIRIAKO Gobernuak ez zuen adierazpen ofizialik egin atzo Yitzhak Rabin Israelgo lehen ministroaren hilketaz, baina prentsa ofizialak argitaratu emandako informazioetan irakur zitezkeen Damaskoren nahia zela Israelekiko bake prozesuarekin jarraitzea «iragarritako irizpideetan oinarrituta».

«Siriak bakea lortzeko ahaleginetan segituko du, nahiz eta azken gertakariak jazo eta hemengo edo hango pertsona bat desagertu», argitaratu zuen *Tishrin* egunkariak, Gobernuaren organoak, atzoko alean. Egunkariaren hitzetan, «bakea Israelek etorkizun hurbilean erakusten duen nahiaren eta seriotasunaren arabera berrezarriko da».

Rabinek hilketaren ondoren «Israelek ahaleginak egin behar ditu negoziazioak bi fasetan egiteko: siriar eta israeldarren artean eta libanoar eta israeldar artean», nabarmendu zuen *Tishrinek*.

Siriaren eta Israelen arteko bake negoziazioak etenda daude ekainaz geroztik. Bi herriak ez datoz bat israeldarren balizko erretiratzearen ondoren Golanen finkatuko liratekeen segurtasun mekanismoer buruz.

Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionalako buruak gaitzetsi egin zuen Rabinek hilketa. Ez, ordea, Zisjordaniako eta beste herrialdeetako palestinarrek. Libanoko errefuxiatuen eremuetan bizi diren palestinarrek gozokiak oparitu zizkioten elkarri.

Gauza bera egin zuten musulman xiitek, hauek jakin baitakite nolakoak diren Hezbolako gerrilariak babesten diren Libano hegoaldeko herrixketan Israelgo Armadak egiten dituen ofentsibak.

Ramadan Abdala Shala Jihad Islamiarreko buruzagi eta Fati Shkaki erabil berriaren ordezkaria denak adierazi zuen Rabin «terroristen buru» zela. Hussein Jordaniako erregea atsekabetuta azaldu zuen Rabinek hilketarekin, eta «sentimenduak eta pentsamenduak hitzez azaltzea zaila zait» aitortu zuen.

Irakeko erregimenak ere ez zuen txintik esan; prentsa ofizialak berria plazaratu zuen besterik gabe.

Libian ospatu egin zen heriotza, baina Irango erregimenak erabili zituen hitz gogorrenak eta argienak: «Rabini moneta berarekin ordaindu zaio», zabaldu zuen IRNA herri agentzia ofizialak. X